

EKONOMIA ETA ENPRESEN KUDEAKETAREN MUNDURA HURBIL GAITEZEN

- **Jakintza adarra:** Gizarte eta Lege Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko)
- **Gradua/k:**
 - Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza
 - Ekonomia
 - Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa
 - Marketina
- **Garapen-lekua (helbidea):** Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko), Lehendakari Agirre etorbidea, 83. Bilbo

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Zerrendatzen diren tailer eta jarduera ezberdinen bitartez, ekonomia eta enpresaren munduaren inguruko interesa sortu nahi da ikasleriaren artean. Gure asmoa, ikasleek informazio erabilgarri eta interesgarri bereganatzea da eta, hori guztia, modu aktibo batean jarduera ezberdinak tartekatuz.

Proposatzen diren jardueren helburua da Batxilergoko eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak ekonomiaren eta enpresa-kudeaketaren munduko errealitatera arin, dinamikoki eta praktikoki hurbiltzea. Fakultatean eskaintzen diren ikasketen garapen profesionalerako aukerei buruzko informalak ere bilatzen dira.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza eta Marketin Tailerra: Parte-hartzaileak marketin kanpaina baten diseinuaren oinarritzko elementuetan barneratuak izango dira. Horretarako, eta irakasle espezialista baten laguntzaz, publizitate-iragarki ezberdinak aztertuko dituzte eta haien zerbitzuak eskatu dituen enpresa hipotetiko batentzako publizitate kanpaina bat diseinatuko dute.
- Finantza Tailerra: Parte-hartzaileak finantza tresnarik arruntenekin harremanetan jarriko dira (gordailuak, pentsio-planak, mailegu mota ezberdinak etab.)
- Enpresa Tailerra: Parte-hartzaileak eremu birtual batean mugituko dira non enpresaritza inguru batean erabakiak hartzen eta gestionatzen ikasiko dute.

- d. Iragarpen ekonomikoen Tailerra: Ekonomiaren munduan hitz egiten da maiz KPI-ri buruz (kontsumorako prezioen indize) etxebizitzaren prezioari buruz, etab. Tailer honetan, parte-hartzaileak iragarpenen munduan sakonduko du. Zein izango da etxebizitzaren prezioa haren ikasketak buruko dituen unean?
- e. Zergei buruzko Tailerra: Zergak, desgrabazioak, kendurak, kuotak, interes tipoak, zerga-oinarriak etab. Tailer honetan zerga munduaren kontzeptu nagusiak antolatuko eta argituko dira likidazio praktika bat prestatzen delarik.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Proposatutako jarduerak, Tailer edo Mintegiak, praktikoak izango dira gehien bat

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2024-06-14	Euskara	Goizez	09:00 – 13:00	90
2024-06-14	Gaztelania	Goizez	09:00 – 13:00	90